DANTZALABEA

2026ko EGOITZA ARTISTIKOETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

© Juan Félix Ruiz

DANTZALABEA dantzaren praktika profesionalerako gune bat da, Barakaldo Antzokian (Barakaldo · Bizkaia-Euskadi) kokatua.

Bizkaiko eta beste lurraldeetako dantzaren sorkuntza bultzatzeko eta sektore profesionala sendotzen laguntzeko, **2026ko martxoaren 22tik abenduaren 30era bitartean egingo diren 4 egonaldi artistikorako deialdia** egiten da.

Egonaldi horien **helburuak** hauek dira:

• Artisten zerbitzura dagoen tresna izatea, sortzaileei baldintza materialak eta espazialak eskainiz, dantza garaikidearen eta mugimenduaren inguruko proiektu sortzaileak garatzeko.

• Antzokiaren beraren jarduera motorra izatea, sorkuntzarekin elkarrizketan eta bere ekintza eta programazio ildoekin lotuta, bere espazioen erabilera potentziala maximizatuz.

• Profesionalizazioa eta prestakuntza bultzatzea bai ibilbide luzeko artista finkatuentzat, bai ibilbide laburragoa duten artista emergenteentzat, ikerketarako eta sorkuntzarako espazio bat eskainiz.

• Herritarrei dantza garaikideari lotutako gogoeta artistikorako sarbidea erraztea, sormen prozesuen bidez.

Deialdi honetan parte hartzeak ez du esan nahi amaitutako pieza bat egin behar denik.

Proiektuak hautatzeko, jarraian aipatzen diren **OINARRIAK** hartuko dira kontuan:

1 BALDINTZAK

Deialdi hau honako baldintza hauek betetzen dituzten artista eta konpainiei zuzenduta dago:

- Dantza garaikidearen eta mugimenduaren inguruko proiektu artistiko bat garatzeko interesa duten artista guztiak.
- Koreografiaren esparru garaikidean lan egiten duten pertsonak edo bertan ibilbide profesional bat hasi nahi dutenak.

* Blanca Arrietaren *Fragmentos* proiektuaren argazkia (2025eko egoitza artistikoa)

Ezin izango dira dirulaguntzaren onuradun izan Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan aurreikusitako baztertze- edo debeku-kausaren batean dauden pertsonak.

2 EGONALDI-MOTAK

A. Sorkuntza egonaldia finkatutako artista/konpainientzat.

Gutxienez hiru ikuskizun profesionalki estreinatu dituzten artista edo konpainiak.

A.1. Egoitza Bizkaian duten artistak eta konpainiak, edo beren lana eta ibilbidea Bizkaiarekin lotuta dutenak.

A.2. Beste lurralde batzuetan egoitza duten artistak eta konpainiak.

B. Sorkuntza egonaldia artista/konpainia berrientzat.

Oraindik ikuskizunik estreinatu ez duten edo, gehienez ere, arlo profesional edo amateurrean estreinatutako bi ikuskizun eskaini dituzten artistak eta konpainiak.

B.1. Egoitza Bizkaian duten artistak eta konpainiak, edo beren lana eta ibilbidea Bizkaiarekin lotuta dutenak.

B.2. Beste lurralde batzuetan egoitza duten artistak eta konpainiak.

3 BALIABIDEAK

DANTZALABEAk honako hau eskaintzen du:

- Egonaldia garatzeko **gune bat**: DANTZALABEA dantza-aretoa, Barakaldo Antzokian, Elcano kalea 4, 48901 Barakaldon kokatuta. **Planoa eta argazkiak** **Fitxa teknikoa**
- Amankomuneko espazioetara, atseden gunera eta sukaldera sartzea, erabilgarritasuna kontsultatu ondoren.
- **Laguntza teknikoa** behar izanez gero.
- **Ordutegia**: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 20:00etara
- **Iraupena**: gehienez 2 aste jarraian edo txandaka egonaldi bakoitzerako.
- **Datak**: 2026ko martxoaren 22etik abenduaren 30era.
- **Laguntza ekonomikoa**:
  - 2.420 € (BEZa barne) Bizkaiko artista/konpainia finkatu batentzat.
  - 2.420 € (BEZa barne) beste lurraldeetako artista/konpainia finkatu batentzat.
  - 1.210 € (BEZa barne) Bizkaiko artista/konpainia berri batentzat.
  - 1.210 € (BEZa barne) beste lurraldeetako artista/konpainia berri batentzat.

  Pertsona/konpainia egoiliarrak faktura egin ondoren ordainduko dira laguntzak, dagokion fiskalitatea aplikatuta.

4 BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO MODUA

Formularioa bete eta dokumentu hauek atxikitu:

Dossierra (gehienez 6 orrialde) pdf formatuan, honako hauek barne hartuta:

- Proiektuaren deskribapena eta izenburua.
- Sinopsia.
- Helburuak.
- Proiektua Dantzalabean gauzatzeko motibazioa.
- Fitxa artistikoa.
- Fitxa teknikoa.
- Aurreko lanetako bideoen estekak (berrienak).
- Laguntzaileak (izanez gero).
- Garrantzitsua den beste informazioa.

Argazkiak (gutxienez 2).

Proiektua aurkezteko **bideoa** (gehienezko iraupena: 5 minutu)

Artistaren edo konpainiaren **biografia edo curriculuma**.

5 ARTISTAK / KONPAINIAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA EMATEKO PROZEDURA

Erregimena norgehiagokakoa da. Modalitate bakoitzera aurkeztutako proiektuak alderatuko dira ondoren jasotako balorazio irizpideen arabera, eta puntuaziorik handiena lortu duen proiektuari emango zaio dirulaguntza.

Balorazio batzorde batek aztertuko ditu aurkeztutako proiektuak, honako irizpide hauen arabera:

A modalitatea (artista/konpainia finkatuentzako 2 sorkuntza egonaldi, bata Bizkaian kokatutakoa eta bestea Bizkaiatik kanpo kokatua):

a) Proiektuaren kalitatea eta koherentzia (gehienez 10 puntu).
b) Lan-planaren bideragarritasuna eta proiektua egonaldiko espazioetara egokitzea (gehienez 10 puntu).
c) Originaltasuna eta berrikuntza maila (gehienez 5 puntu).
d) Eragin artistikoa, kontzeptuala edo teknikoa eta proposamenaren proiekzio potentziala (gehienez 5 puntu).
e) Eskatzailearen ibilbidea (gehienez 5 puntu).

Modalitate honetan baloratua izateko aukera edukitzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira, eta horietatik gutxienez 12 a/ (kalitatea eta koherentzia) eta b/ (bideragarritasuna) balorazio irizpideei egokitu beharko dira.
12 puntu horiek gainditu ezean, balorazio batzordeak ez ditu gainerako irizpideak baloratuko.

Proposamenak, baloratu ondoren, proiektuak lortutako puntuazioen arabera ordenatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, a/ (kalitatea eta koherentzia) balorazio irizpidearen puntuazio altuenaren arabera erabakiko da.

Hautatzen ez diren baina 20 puntuko muga gainditzen duten proposamenak itxarote zerrenda batean sartuko dira, laguntzen behin betiko ebazpena eman arte.

B modalitatea (Artista/konpainia berrientzako bi sorkuntza egonaldi, bata Bizkaian kokatutakoa eta bestea Bizkaiatik kanpo kokatua)

a) Proiektuaren kalitatea eta koherentzia (gehienez 10 puntu).
b) Lan planaren bideragarritasuna eta proiektua egonaldiaren espazioetara egokitzea (gehienez 10 puntu).
c) Originaltasuna eta berrikuntza maila (gehienez 7,5 puntu).
d) Eragin artistikoa, kontzeptuala edo teknikoa eta proposamenaren proiekzio potentziala (gehienez 7,5 puntu).

Modalitate honetan baloratua izateko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira, eta horietatik gutxienez 12 a/ (kalitatea eta koherentzia) eta b/ (bideragarritasuna) balorazio irizpideei egokitu beharko dira. 12 puntu horiek gainditu ezean, balorazio batzordeak ez ditu gainerako irizpideak baloratuko.

Proposamenak, baloratu ondoren, proiektuak lortutako puntuazioen arabera ordenatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, a/ (kalitatea eta koherentzia) balorazio irizpidearen puntuazio altuenaren arabera erabakiko da.

Hautatzen ez diren baina 20 puntuko muga gainditzen duten proposamenak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, laguntzak emateko behin betiko ebazpena eman arte.

6 BALORAZIO-BATZORDEA

Balorazio Batzordea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriko da eta honako hauek osatuko dute:

- Barakaldo Antzokiko zuzendaria, lehendakari gisa.
- Dantzaren munduari lotutako ibilbide ezaguneko pertsona bi.
- Barakaldo Antzokiko garapen koordinatzailea, idazkari gisa.

Balorazio batzordeari proposamenak ezarritako irizpideen arabera ebaluatzea eta modalitate bakoitzean proposamen irabazleak eta ordezkoak hautatzea dagokio.

7 ARTISTEN / KONPAINIAREN BETEBEHARRAK

• **Proiektu berriak edo prozesuan daudenak** baino ez dira onartuko. Ez dira kontuan hartuko ez amaitutako ez estreinatutako piezak.

• Hautatutako artistak/konpainiak **proposatutako espazioa bere egoitza garatzeko egokia dela ziurtatu** beharko du eta jakinarazpena egin eta astebeteko epean **onarpena berretsi** beharko du, egutegiak behar den aurrerapenaz itxi ahal izateko.

• Adostutako egunetan artistak/konpainiak justifikaziorik gabe lan espaziotik alde egiten badu, egonaldia bertan behera eta emandako laguntza baliogabe gera daitezke.

• Prozesua irekitzeko uneak sortzeko, materialak partekatzeko eta beste profesional batzuekin elkarrizketa bat ezartzeko aukera.

• Proposamena jendaurrean aurkeztea egonaldiaren amaieran.

• DANTZALABEAri bere sormen prozesuaren argazkiak ematea, egoitzen programa zabaltzeko. DANTZALABEAk beretzat gordetzen du prozesuaren argazkiren bat edo bideo laburren bat egiteko baimena.

• DANTZALABEAk eta haren laguntzaileek antolatutako beste testuinguru eta proiektu batzuetan parte hartzea, proiektua aberastu dezaketela iritziz gero.

• DANTZALABEAren logoa sartzea, egonaldiaren garaian eta ondoren sortutako obraren komunikazio osoan laguntzaile gisa.

8 DATUEN BABESA

Parte hartzaileek emandako datu pertsonalak Barakaldo Antzokiaren titulartasuneko fitxategi batean sartzea onartzen dute. Fitxategi horren helbidea honako hau da: Elkano kalea 4, 48901 Barakaldo (Bizkaia). Horrela, deialdi hau, bere kudeaketa administratiboa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izango dira. Parte-hartzaileak berarekin lan egiten duten beste pertsona batzuen datu pertsonalak ematen baditu, baimena eskatu beharko du bere datuak Barakaldo Antzokiari jakinarazteko, helburu berarekin. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak posta elektroniko bidez gauzatu ahal izango dira, Horretarako dantzalabea@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da gaian “Sartzeko eskubideak” aipatuz, datuen titularrak sinatutako gutun bat eta NANaren edo antzeko beste egiaztagiriren baten copia erantsiz eta jakinarazpenetarako helbidea adieraziz.

9 ARTISTEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Egonaldi hauen onuradun diren artistek baimena ematen diote DANTZALABEAri bere izena, irudia eta, hala badagokio, ahotsa, Barakaldo Antzokiko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan dituen edukiak erabiltzeko, ondoren informazioa edo promozioa zabaltzeko. Hori guztia ohorerako eskubideari kalte egin diezaioketen erabilera edo aplikazioen salbuespen eta mugarekin, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudiarako Eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera. Aurreko eremutik kanpo egindako beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da berariaz.

10 OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek, deialdi honetara aurkezteagatik, bertan ezarritako baldintzak onartzen dituzte.

Deialdi irekia 2026ko urtarrilaren 10etik 31ra

AURKEZTEKO EPE AMAIERA: urtarrilaren 31an, 14:00etan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi posta elektroniko bat dantzalabea@gmail.com helbidera

Egoitzen programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du.

DANTZALABEA
BARAKALDO ANTZOKIA - Elcano 4, 48901 (Barakaldo) BIZKAIA
+Info:
www.teatrobarakaldo.com
dantzalabea@gmail.com